

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2024 Foru Dekretua uztailaren 16koa. Onestea foru ondareko ondasunen eta eskubideen inbentario orokorra arautzen duen erregelamendua**

Administrazio publikoen ondasun eta eskubideen inbentarioa haien ondarearen berme tresna gisa eratu izan du ondare legeriak, eta ondarea kontserbatzeko eta defendatzeko balio behar du, eta, aldi berean, ondasun publikoen gaineko administrazio ahalak erabiltzea erraztu.

Arabako Lurralde Historikoko inbentarioaren egungo arauketa, haren eskumen propioetan oinarrituta, Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauaren I. tituluaren IV. kapituluaren gauzatzen da.

Azken xedapen bakarrean ezarritakoarekin bat etorriz, foru aldundiari dagokio foru arau hori garatzea arautegi baten bidez.

Ikusi da komeni dela gai hori arautegi bidez arautzea, Arabako Foru Aldundian eta arauaren 1.2 artikuluan adierazitako zenbait erakundetan aplikatzeko, batez ere gaur egun dauden foru erakunde autonomoetan; hortaz, inbentarioaren arloko arautegi bat egin eta onestea planteatu da.

Horren bidez, alde batetik, foru ondarearen ondasun eta eskubideen inbentarioa arautu nahi da lehenengo aldiz arau espezifiko baten bidez, eta, bestetik, ondare horren kudeaketa erraztu eta hobetu nahi da eraginpeko entitateen barruan.

Arautegi bidezko garapen hori egiteko, honako printzipio hauek aplikatu behar dira: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia, zeinak arautegiak egiteko ahala baliatzean bete behar baitira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikulua arabera. Printzipio horiek jasota daude Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan, zeinaren bidez onesten baita xedapen orokorrak egiteko prozedura, eta foru dekretu hau hura batez izapidetu da.

Ebazpen hau kontsulta batzordeari aurkeztu zaio, azter dezan, eta hark emandako irizpenaren ondorioen arabera erabaki da.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Onespena ematea inbentarioaren arloko arautegiari, zeinak Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Araua garatzen baitu**

Lehenengo xedapen gehigarria. Ondarearen arloko eskumena duen sailak, kasuan kasuko ebazpenen bidez, arautegi hau errazago interpretatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren ondare jarraibideak onetsiko ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. Ondarearen arloan eskumena duen sailari ahalmena ematea elementu edo aktibo mota berriak gehitzeko, haien izena aldatzeko edo 17. artikuluan ezarritako epigrafeak ezabatzeke, baldin eta inbentarioa eraginkorrago antolatzeak hala eskatzen badu, inbentarioko ondasun eta eskubideen informazio premia gehiago sortzen badira edo arau aldaketek hala eskatzen badute.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ondarearen arloan eskumena duen sailari ahalmena ematea 21. artikuluan adierazitako epigrafe edo aktibo mota bakoitzean datu berriak sartzeko edo haien izena aldatzeko edo ezabatzeko, baldin eta inbentarioa eraginkorrako antolatzeak hala eskatzen badu, inbentarioko ondasun eta eskubideen informazio premia gehiago sortzen badira edo arau aldaketek hala eskatzen badute.

Azken xedapena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 17a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*

**IÑAKI ARRIZABALAGA ORMAECHEA**

## ERANSKINA INBENTARIOAREN ARAUTEGIA

### I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea

Arautegi honen xedea da hauexek ezartzea: foru ondarearen ondasun eta eskubideen inbentario nagusiaren (aurrerantzean, inbentario nagusia) eta Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen inbentarioren antolaketa, osaera, funtzionamendua eta alta, baja, eguneratze, aldaketa eta onespen prozedurak.

#### 2. artikulua. Foru ondarearen inbentario nagusia

1. Foru ondarearen ondasun eta eskubideen inbentario nagusiak erakunde hauek nahitaez eraman behar dituzten inbentarioak hartzen ditu barnean:

- Arabako Foru Aldundia.
- Arabako Batzar Nagusiak.
- Foru erakunde autonomoak.
- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
- Administrazioko foru partzuergoak.

2. Arabako Foru Aldundiak osatuko du inbentario nagusia, hargatik eragotzi gabe 11/2019 Foru Arauaren 24. artikuluan 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera bertan adierazitako erakundeek eraman behar dituzten inbentario propioak eraman behar izatea.

3. Hori guztia, halaber, 11/2019 Foru Arauak Arabako Batzar Nagusiei aitortzen dien ondare autonomiaren kalterik gabe.

#### 3. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren inbentarioa

Arabako Foru Aldundiaren inbentarioak, ondarea kudeatzen laguntzeko tresna den aldetik, haren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak biltzen ditu, IV. tituluan adierazitako egitura, osaera eta edukiak oinarri.

**4. artikulua. Foru erakunde autonomoen inbentarioak**

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, honako erakunde hauenak dira foru erakunde autonomoen inbentarioak, ondarearen kudeaketari laguntzeko tresna gisa, bat etorritik 11/2029 Foru Arauaren 24. artikulua 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoarekin:

- a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
- b) Gazteriaren Foru Erakundea.
- c) Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa.

2. Erakunde publiko horien inbentarioek beren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eta Arabako Foru Aldundiak atxikitzen dizkionak biltzen dituzte.

3. Inbentario horiek 15. artikuluan Arabako Foru Aldundiarentzat adierazitako osaera izango dute, aplikagarri zaizkien osagaiekin.

4. Erakunde horien inbentarioak onetsi ondoren, 11/2019 Foru Arauaren 1.2 artikuluko gainerako erakundeenekin batu eta inbentario nagusia osatuko dute.

**II. TITULUA FORU ONDAREAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN  
INBENTARIO NAGUSIA. ARAUBIDE JURIDIKOA****5. artikulua. Aplikatu beharreko araudia**

Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko 11/2019 Foru Arauak, arautegi honek eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek arautzen dute inbentario nagusia.

**6. artikulua. Inbentarioei buruzko eskumena**

1. Ondare Zerbitzua arduratzen da inbentario nagusia egiteaz eta eguneratzeaz, 11/2019 Foru Arauaren 24. artikuluko 2. apartatuan adierazitako baldintzetan, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Inbentarioa eramateaz, eguneratzeaz eta aldatzeaz ere, hargatik eragotzi gabe 11/2019 Foru Arauan eta arautegi honetan bertako beste erakunde eta organo batzuei ematen zaizkien eskumenak eta betebeharrak.

2. 4. artikuluan adierazitako erakundeen inbentario propioei dagokienez, organo ardura-dunak izango dira beren arauetan kasuan kasuko erakundeen ondarea kudeatzeko ardura esleituta dutenak, eta, halakorik ezean, haren legezko ordezkariak duena.

**7. artikulua. Inbentarioaren euskarria**

1. Inbentario nagusia eta 2. artikuluan zerrendatutako erakundeek eraman beharreko gainerako inbentarioak sistema informatikoetan kokatuko dira, eta sistema horiek bermatu beharko dute behar bezala jasota daudela arautegi honetan modulu eta epigrafe bakoitzerako ezartzen diren datuak eta informazioa, halako moldean non ahalik eta gehien lortu ahal izango baita datu eta informazio horien benetakotasuna eta egiazkotasuna, haiek modu eraginkorrean sartzeko eta aldatzeko aukera, eta haiek guztiak behar bezala ustiatzea.

2. Arabako Foru Aldundiaren Ondare Zerbitzuan mantendu eta zainduko dira Arabako Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen inbentarioetako ondasun higiezinak eta eskubideak ordezkatzeko edo gauzatzen dituzten jabari tituluak, mugaketa aktak, tituluak, balioak eta gainerako dokumentazioa, jabari publikoan sartutako elementuen nahitaezko desjabetze aktak izan ezik.

**8. artikulua. Inbentarioa eta kontabilitatea**

1. Inbentario nagusia osatzen duten inbentarioak ondare kontabilitatearekin koordinatuta egon beharko dira, eta banan-banan zehaztu beharko dira kontabilitate horretan erregistratuta dauden ibilgetuaren elementuak.

2. Arabako Foru Aldundiko Kontabilitate Zerbitzuak eta 2. artikuluko gainerako organoek inbentarioan sartutako ondasunen amortizazioari buruzko oharrak jasoko dituzte, aplikagarri zaizkien kontabilitate publikoko arauen arabera.

**9. artikulua. Inbentarioaren ziurtagiriak**

1. Arabako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren buruak jaulkiko ditu inbentario nagusiari buruz jaulki behar diren ziurtagiriak, eta inbentario horretan jasotako datuetan oinarrituta egingo dira, hargatik eragotzi gabe gainerako inbentarioen ziurtagiriak eskatu ahal izatea hurrengo apartatuetan hartarako izendatutako pertsonen.

2. Arabako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren buruak jaulkiko ditu Arabako Foru Aldundia-  
ren inbentarioari buruz jaulki behar diren ziurtagiriak, eta inbentario horretan jasotako datuetan oinarrituta egingo dira, bai eta hartan jasotako datuak berresten dituzten titulu eta dokumentu guztietan oinarrituta ere, zeinak Ondareari buruzko 11/2019 Foru Arauaren 27. artikulua-  
ren bigarren paragrafoan eta dekretu honen 7. artikulua-  
ren 2. apartatua-  
n aipatzen baitira.

3. Aurreko ahalmen bera izango dute 4. artikuluan adierazitako inbentario propioei dago-  
kenez, beren arau erregulatzaila-  
rean kasuan kasuko erakundearen ondarea kudeatzeko ardura esle-  
ituta duten organoen arduradunek, eta, halakorik ezean, haren legezko ordezkari-  
tzaren duenak.

4. Kultura ondasun higigarrien gainean egin beharreko ziurtagiriak 19.2 artikuluan jasotako moduan jaulkiko dira.

**10. artikulua. Inbentarioa kontuan hartzea eta hirugarrenek kontsultak egitea**

1. Inbentario nagusia, bai eta han araututako gainerako inbentarioak ere, ez dira erregistro publikotzat jotzen, eta haietan jasotako datuak, bai eta datu horiek gehitu edo estatistikoki ustiatzearen emaitzak ere, informazio lagungarria da barne kudeaketarako eta kanpoko ondorio publikoetarako hala ezarrita badago.

2. Datu horiek ez dute ondorioz eragingo hirugarrenen aurrean, eta hirugarren horiek ezingo dituzte erabili eskubideak baliatzeko 2. artikuluan aipatzen diren erakunde-  
en aurrean.

3. Hirugarrenek inbentarioetako datuak kontsultatu ahal izateko, espediente baten parte izan beharko dute, eta haiek eskuratzeko arau orokorren arabera eskuratu beharko dira. Hori guztia, gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoari kalterik egin gabe.

**III. TITULUA. INBENTARIOAK ERATZEA****11. artikulua. Inbentario nagusia eta gainerako inbentarioak aldatzea eta eguneratzea**

Inbentario nagusia osatzen duten inbentarioetako informazioan egoten diren aldaketak haietan jasoko dira, inbentarioak eramateko ardura duten organoek aldaketa horien berri izaten dutenean.

**12. artikulua. Inbentario nagusia eta gainerako inbentarioak onestea**

1. Foru Gobernu Kontseiluak izango du inbentario nagusia eta Arabako Foru Aldundiarena onesteko eskumena.

2. 4. artikuluan adierazitako erakunde-  
en inbentario propioei dagokien-  
ez, organo arduradu-  
nak izango dira beren arau-  
ek zehazten dituztenak, eta, halakorik ezean, haren legezko ordezkari-  
tzaren duena.

**13. artikulua. Urtean behingo eguneratzea**

Urtean behin, kontu orokorrean, ondarearen arloan eskumena duen sailak Arabako Foru Aldundiaren eta 4. artikuluan adierazitako erakunde autonomoen inbentarioa eguneratuko du, eta aurreko eguneratze-  
tik ondasun eta eskubideetan izandako era guztietako aldaketak jasoko dira bertan.

**14. artikulua. Sailen eta organoen betebeharrak inbentarioekiko**

2. artikuluan adierazita dauden baina inbentarioak egiteko ardura ez duten erakunde-  
etako sail eta organoek, egokitzen zaien neurrian, beharrezko informazioa, laguntza eta dokumentazioa emango diete adura hori dutenei, bai eta inbentario horiek behar bezala eramateko eta egune-  
ratzeko alta, aldaketa, edozein motatako gorabehera edo baja ekar dezakeen edozein jarduketari buruz eskatzen zaien informazioa ere, arautegi honetan eta berau garatzeko arauetan ezartzen den moduan.

Aurrekoa betetzeko, betebeharrak hauek izango dituzte bereziki:

a) Inbentarioko aplikazio informatikoan elementu bakoitzerako ezarritako informazioa betetzea, elementu horiek identifikatu, bereizi, erlazionatu, sailkatu, informazio ondorioetarako tratatu eta baloratu ahal izateko behar besteko zehaztasunez, argitasunez, benetakotasunez eta egiazkotasunez.

b) Inbentarioaren ardura duten organoei inbentarioko elementuen altak, bajak, aldaketak eta balorazioak jasotzen dituzten dokumentuak ematea.

#### IV. TITULUA. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN INBENTARIOA ANTOLATZEA

##### I. KAPITULUA. INBENTARIOAREN OSAERA

###### 15. artikulua. Partzuergoaren osaera

1. Arabako Foru Aldundiaren inbentarioa ondarea kudeatzen laguntzeko tresna da, eta haren ondarearen ondasun eta eskubide hauek islatzen ditu:

a. Ondasun higiezinaren jabetza, haien gaineko eskubide errealak, errentamendu eskubideak eta beste edozein eskubide pertsonal, baldin eta haien bidez Arabako Foru Aldundiari eta 4.1 artikuluan aipatutako erakundeei besteren ondasun higiezinaren erabilera edo gozamena esleitzen bazaie.

b. Jabetza gorpuzgabearen eskubideak:

1. Jabetza industrialeko eskubideak, hala nola zeinu bereizgarriak, hau da, marka eta izen komertzialak, patenteak eta baliagarritasun modeloak, diseinu industrialak eta erdieroaleen topografiak.

2. Literatur lan, lan artistiko edo zientifikoen, ordenagailu programen eta datu baseen gaineko eskubideak biltzen dituzten jabetza intelektualeko eskubideak.

3. Jabari izenak.

c. Mila euro edo gehiagoko balioa duten ondasun higigarri ez-kontsumigarriak, 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

d. Ibilgailuak, aireontziak, itsasontziak eta beste garraiobide batzuk.

e. Merkataritza sozietateen kapitalean akzioak eta partaidetzak edo haiek jaulkitako obligazioak ordezkatzen dituzten baloreak eta tituluak.

2. Arautegi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira:

a) Erakunde eskuratzailaren helburu bereziekin bat etorritik ondarearen trafiko juridikoari itzultzeko helburuarekin eskuratu diren ondasunak eta eskubideak.

b) Ondasun higigarri kontsumigarriak, bai eta mila eurotik beherako balioa duten ondasun higigarri ez-kontsumigarriak ere, hargatik eragotzi gabe erakunde eskuratzailak edo atxikitzen zaion erakundeak haien erabilera eta kontserbazioa kontrolatzea.

##### II. KAPITULUA. TXOSTENAREN EGITURA

###### 16. artikulua. Inbentarioaren egitura

1. Arabako Foru Aldundiaren inbentarioa funtsezko bi modulutan antolatuko da, haren euskarri den aplikazio informatikoaren barruan:

a) Aktibo finkoak kudeatzea.

b) Ondasun higiezinak kudeatzea.

2. Aktibo finkoak kudeatzeko moduluak elementu edo aktibo finko mota guztiei buruzko datuak jasoko ditu, izaeraren arabera sailkatuta, hurrengo artikuluan ezartzen diren epigrafeetan.

Sailek sartuko dituzte datuak modulu honetan, zehazten den egituraren arabera eta 14. artikuluan ezarritako moduan.

3. Ondasun higiezinak kudeatzeko moduluak Inbentarioan sartutako higiezinen datuak soilik jasoko ditu, Ondare Zerbitzuak zehazten dituen egitura eta edukiarekin.

Ondare Zerbitzuak sartu eta aldatuko ditu datuak modulu honetan.

4. Bi moduluak elkarrekin lotuta egongo dira.

#### **17. artikulua. Aktibo finkoak kudeatzeko moduluak**

1. Modulu honetan bereizita adieraziko dira, izaeraren arabera, epigrafe edo aktibo mota hauetan behintzat multzokatuta:

a) Higiezinak.

Honela banatuko da:

1. Lursailak.
2. Eraikinak.
3. Azpiegiturak.
4. Instalazioak.

b) Errentamenduak eta eskubide errealak.

Honako epigrafe hauek izango ditu, era berean:

1. Jabetza industrialak eta intelektuala.
2. Aplikazio informatikoak.

c) Kultura ondasunak.

Inbentario osagarriak eduki ahal izango dituzte.

d) Balore higigarriak.

Honela banatuko da:

1. Taldeko erakundeetan parte hartzea.
2. Epe luzeko ondarezko finantza inbertsioak.

e) Garraio elementuak.

f) Altzariak.

Honela banatuko dira:

1. Altzariak.
2. Informazioa prozesatzeko ekipak.
3. Makinak eta tresnak.

g) Lagatako ondasunak.

2. Ondarearen arloan eskumena duen sailak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango ditu modulu honetako epigrafeak, baldin eta inbentarioa eraginkorrako antolatzeak hala eskatzen badu, ondasun eta eskubideak sailkatzeko modu berriak sortzen badira edo arau aldaketek hala eskatzen badute.

**18. artikulua. Ondasun higiezinak kudeatzeko modulu**

1. Modulu honetan kokatuko dira Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondasun higiezin inbentariarako garrantzitsuak diren datu, informazio eta dokumentu guztiak, bai eta Aldundiak erabiltzen edo edukitzan dituenak ere, edo datu, informazio eta dokumentuak, zeinen gainean eskubideren bat baitu.

2. Ondarearen arloko eskumena duen sailak zehaztuko ditu modulu hau osatzen duten datu, informazio eta dokumentuen egitura eta osaera.

**19. artikulua. Kultura ondare higigarria**

1. Kultura ondasun higigarriei dagokienez, zeinak hala definituak eta arautuak baitaude araudi espezifikoan, Arabako Foru Aldundiaren inbentarioan jasoko dira oharretan, funts homogeneoen edo ondasun higigarrien multzoen arabera taldekatuta, eta funts edo multzo horien balorazio orokorrarekin. Xehetasunez eta banan-banan jasoko dira inbentario osagarrietan, arautegi honen ondorioetarako. Kultura arloko eskumena duen saileko zerbitzuek eramango dituzte inbentario horiek, eta, ahal denean, banakako balorazioa egingo dute.

2. Ondasun horiei buruz ematen diren ziurtagirien ondorioetarako, zerbitzu horien arduradunek inbentario osagarri horien edukiaren ziurtagiria egingo dute 9. artikuluan jasotako moduan, inbentarioen arduradunak ziurtagiria egin baino lehen.

**III. KAPITULUA. INBENTARIOAREN EDUKIA****20. artikulua. Inbentarioko ondasun eta eskubide guztien eduki komuna**

1. 17. artikuluan zerrendatutako aktibo finkoak kudeatzeko moduluaren epigrafe bakoitzean eta, hala badagokio, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera ondasun higiezinak kudeatzeko modulan zehazten diren epigrafeetan egiten diren oharrek artikulua honetan adierazitako datuak jasoko dituzte, bai eta 21. artikuluan haietako bakoitzerako espezifikoki zerrendatutakoak ere, kasuan kasuko ondasun eta eskubideen izaeraren arabera aplikagarriak badira.

2. Inbentarioko elementu guztien oharretan aktibo finkoaren zenbakia jasoko da, kontabilitate araudiaren arabera.

3. Ondasun edo eskubide bakoitzaren oharrean, hura atxikita dagoen organoa edo saila agertuko da, baita beste organismo edo erakunde publiko batzuen alde egindako atxikipenak ere.

Ezein organori atxikita ez dauden ondasun eta eskubideen kasuan, Inbentarioaren organo arduraduna izango da atxikipen organoa, hau da, Ondare Zerbitzua.

4. Oharretan jasotako ondasun eta eskubide guztietan agertuko da haien kalifikazio juridikoa, hau da, jabari publikoko edo ondareko ondasun edo eskubide bat den, 11/2019 Foru Arauaren I. tituluan jasotako ezaugarrien arabera.

5. Oharretan jasotako ondasun eta eskubide guztietan, haiek noiz eskuratu diren jasoko da, eta, haiei buruzko oharretan, noiz eragingo dituzten ondorioak.

6. Oharretan jasotako ondasun eta eskubide guztietan, haiek nola eskuratu diren jasoko da.

7. Inbentarioan foru ondarearen ondasun eta eskubideen afektazio, desafektazio, atxikipen eta desatxikipen egintzen emaitzak jasoko dira, bai eta jabari publikoko aldaketak ere.

8. Ondasun edo eskubide bakoitzean, haien gainean eratu diren eskubide errealak, kargak, zortasunak, erabilera eskubideak eta errentamendu eskubideak aipatuko dira.

9. Oharretan jasotako ondasun eta eskubide guztietan, haiek nola baloratu diren jasoko da.

**21. artikulua. Inbentarioaren datuak**

Inbentarioan, IV. titulu honetako II. kapituluaren adierazitako moduluan, aurreko artikuluan epigrafe edo aktibo mota guztietarako adierazitakoez gain, honako datu hauek jasoko dira, gutxienez, aktibo mota bakoitzerako:

1.– Higiezinak (ondasun higiezinak kudeatzea).

1. Higiezinaren kokapena.

2. Eskuratze tituluaren datuak.

3. Jabetza Erregistroko edo beste erregistro batzuetako inskripzio datuak.

4. Katastroko erreferentzia.

5. Azalera.

6. Higiezinaren gaineko eskubide errealak, kargak, zortasunak eta beste eskubide batzuk.

2.– Errentamenduak, eskubide errealak eta beste eskubide edo zortasun batzuk.

a) Higiezinak (ondasun higiezinak kudeatzea).

1. Eskubide mota.

2. Onuraduna.

3. Higiezinaren kokapena.

4. Eskuratze tituluaren datuak.

5. Jabetza Erregistroko edo beste erregistro batzuetako inskripzio datuak, inskribatzeko modukoak badira.

6. Katastroko erreferentzia.

7. Azalera.

8. Amaiera data.

b) Jabetza gorpuzgabearen eskubideak (aktibo finkoak kudeatzea).

1. Xedea.

2. Mota edo izaera.

3. Egilea edo eskubideen titularra.

c) Beste eskubide batzuk (aktibo finkoak kudeatzea).

Xedeak.

3.– Kultura ondasunak.

a) Higiezinak (ondasun higiezinak kudeatzea).

1. Higiezinaren kokapena.

2. Eskuratze tituluaren datuak.

3. Jabetza Erregistroko inskripzio datuak.

4. Katastroko erreferentzia.

5. Azalera.

6. Higiezinaren gaineko eskubide errealak, kargak, zortasunak eta beste eskubide batzuk, inskribatzeko modukoak badira.

b) Higigarriak (aktibo finkoak kudeatzea).

1. Funtza edo zein multzori dagokion.

2. Kokapena, hala badagokio.



4.– Balore higigarriak (aktibo finkoak kudeatzea).

1. Titulu kopurua.

2. Sozietate edo erakunde jaulkitzailea.

3. Mota, seriea eta numerazioa.

5.– Garraio elementuak (aktibo finkoak kudeatzea).

1. Marka.

2. Modeloa.

3. Matrikula.

6.– Higigarriak (aktibo finkoak kudeatzea).

1. Deskribapena.

2. Marka, hala badagokio.

3. Modeloa, hala badagokio.

4. Enpresa edo pertsona eskualdatzailearen izena.

5. Kokapen fisikoa.

7. – Lagatako ondasunak (aktibo finkoak kudeatzea eta ondasun higiezinak kudeatzea).

Aurrekoetatik zein ondasun mota den.

## **22. artikulua. Balorazioa**

Inbentarioko ondasun eta eskubideen balorazioa eskuratze balioaren arabera zehaztuko da, baldin eta balio hori ezagutzen bada edo zehaztu badaiteke, eta, halakorik ezean, tasazio balioaren arabera edo ondorio horietarako zehaztu den beste edozein balioaren arabera, hala nola berrezarpen balioaren edo katastro balioaren arabera.

## **23. artikulua. Gutxieneko zenbateko inbentariagarria**

1. Oro har, inbentariagarriak diren elementu edo aktibo finkoen gaineko jarduketa guztiak jasoko dira inbentarioan, salbu eta hurrengo apartatuan adierazitakoak.

2. Ez zaie alta emango inbentarioan lehengo 17. artikuluan 1. apartatutan b) 2., e) eta f) letrekin adierazitako elementu edo aktibo finkoei, baldin eta 1.000,00 eurotik beherako banakako balioa badute.

# **IV. KAPITULUA. INBENTARIOKO ALTAK, BAJAK ETA ALDAKETAK**

## **24. artikulua. Inbentarioko altak**

Inbentarioan sar daitezkeen ondasun eta eskubideak 14. artikuluan zehaztutako moduan jasoko dituzte inbentarioaren aplikazio informatikoan haiek eskuratzeko edo formalizatzeko eskumena duten sailek berek, hori gertatzen denean.

Alta zein egunetan eman den jaso beharko da.

## **25. artikulua. Inbentarioko aldaketak**

Dagoeneko jasota dauden oharretan egin behar diren aldaketak, halaber, inbentarioaren aplikazio informatikoan egingo dituzte jarduketa izapidetzeko sail eskudunek, baldin eta horrek badakar aldatzea inbentariotutako elementuan jasotako datu edo informazioren bat, bai eta balioaren goranzko edo beheranzko aldaketak ere, horiek gertatzen direnean.

Egindako aldaketaren ondorio data jaso beharko da.

**26. artikulua. Inbentarioko bajak**

Ondasun edo eskubide bati behin betiko baja eman behar zaionean inbentarioan, horren arrazoia adierazteaz gain, baja noiz eman den adierazi beharko da inbentarioaren aplikazio informatikoan, dagokion atalean.

**27. artikulua. Oharra jasotzeko unea**

Kapitulu honetako aurreko artikuluetan deskribatutako jarduketa guztiak ondarearen arloko sail eskudunak zehaztutako unean egingo dira, ezarritako aurrekontu kontabilizazioko prozesuaren barruan.

**V. KAPITULUA. BERARIAZKO JARDUERAK****28. artikulua. Obra berriaren adierazpena**

14. artikuluan aipatutako sail eta organoek egindako jarduera guztiak, baldin eta Arabako Foru Aldundiaren ondarean eraikin berriak sartzeari badakarte edo lehendik zeudenetan funtsezko aldaketak egitea, inbentarioaren ardura duen organoari jakinarazi beharko zaizkio, ezartzen den moduan, behar bezala jasota gera dadin.

Horretarako, jarduketa horien berri emango zaio, zehazten den moduan, eta honako hauek emango zaizkio: obra berriaren ziurtagiria, dagokion teknikariak sinatuta, jarduketa horien oinarri diren administrazio ebazpenak eta inbentarioan behar bezala jasotzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio.

**29. artikulua. Obrak amaitzea**

14. artikuluan adierazitako sailek eta organoek aurrekontua kontabilizatzeko prozesuaren bidez edo berariaz ezartzen denaren bidez jakinaraziko dituzte egiten ari diren obra inbentariagarrien egoera aldatzea dakarten jarduketa guztiak, egiten ari izatearen egoeratik amaituta egoitearen egoerara igarotzeko, behar bezala jasota gera daitezen kontabilitatean eta inbentarioan.

Horretarako, jarduketa horien berri emango zaie ondarearen arloko sail eskuduneko organoei, eta aldaketa horren oinarri diren administrazio ebazpenak helaraziko zaizkie.

**30. artikulua. Administrazio baimenak eta emakidak**

11/2019 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapitulan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiko sailek organo eskudunaren aurrean onesten edo izapidetzen dituzten jabari publikoko baimenak eta emakidak ondarearen arloko sail eskuduneko organoei jakinaraziko zaizkie, eta haiek formalizatzeko ebazpenak eta administrazio dokumentuak helaraziko zaizkie.

**VI. KAPITULUA. AFEKTAZIOAK, DESAFEKTAZIOAK, ATXIKIPENAK ETA DESATXIKIPENAK****31. artikulua. Inbentarioan jasotzea**

Foru ondarearen ondasun eta eskubideen afektazio, desafektazio, atxikipen eta desatxikipen egintzak eta jabari publikoko aldaketak inbentarioan jasoko dira, 11/2019 Foru Arauaren II. tituluaren eta arautegi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

**32. artikulua. Atxikipenak**

Ondasunen atxikipenak berariaz egingo dira, organo eskudunak horretarako onetsitako ebazpenaren bidez, edo hartarako eskumena duen organoak ondasun eta eskubideak eskuratzeko ematen dituen ebazpenen bidez, hartarako eskuordetza badago.

Foru erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko foru erakunde publiko eta administrazio arloko foru partzuergoentzat eskuratuz gero, zehatz adieraziko da ondasuna edo eskubidea zertarako erabiliko den.